



**Udal Taldea**

**LASARTE-ORIAKO UDALAREN OSOKO BILKURARI**

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos Udal Taldeak "Lasarte-Oriako Eskola Publikoaren Matrikulazio Kanpainari" buruzko mozio hau aurkezten du hurrengo Osoko Bilkurarako, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin.

**JUSTIFIKAZIOA**

Ohikoa izaten denez, urtarrilaren amaiera aldera eta otsailaren hasiera aldera, ikasleak onartzeko eta eskolaratzeko prozesua martxan jartzen du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, hezkuntza-arloan eskuduna den sailaren mendeko ikastetxe publikoei zein ikastetxe pribatu itunduei dagokienez, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan, Maila Ertainekoan eta Goi Mailakoan, betiere EA Eri gagozkiola, baita Oinarrizko Lanbide Heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere. Eta aldi berean, Euskal Eskola Publikoaren Matrikulazio Kanpaina ere abiarazten da.

Udalari gagozkiola, eta Hezkuntza Arloaren aldetik, eta betiere matrikulazioaldiaren aurretik, kide bat eskolaratze-adinean zenbat familiek duten kontsultatzen du arloak eta ofizioz igortzen du Eskola Matrikulazioko informazio-triptiko bat. Eskutitz horretan inskripzio-egutegia eta ikastetxe publikoen guztizko kopurua adierazten dira, eta familiak animatu egiten dituzte beren seme-alabak euskara eta gaztelania erraztasunez hitz egiteko gaitasuna bermatzen duten hizkuntza-ereduetan matrikulatzera.

Kontuan izanda Hezkuntza Sistema Dual baten barruan gaudela, gero eta pribatizatua goa eta segregatzaileagoa dela, eta familiei eskutitz bat igortzea eskasegia iruditzen zaigula Lasarte-Oriako eskola publikoetako matrikulazioa sendotzeko, honako hau proposatzen dugu:

**PROPOSAMENA**

1. Fenomenoaren bilakaera balioesteko eta Lasarte-Oriako ikastetxe publikoetako matrikulazioa bultzatuko duten neurriak artikulatzeko Lasarte-Oriako eskola publikoetan matrikulazioaren azterketa bat egin dezala eskatzen dio Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu-taldeari.
2. Lasarte-Oriako Eskola Publikoaren aldeko Matrikulazio Kanpaina bat abiarazi dezala eskatzen dio Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu-taldeari.

Lasarte-Orian, 2020ko otzailaren 5ean.

Bozeramailea Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos

David Ares Rodríguez